


mundua ikusteko era desberdinak



mercator



circulo polar



peters



eta zuk...
nola
ikusten duzuz?

Con la colaboración de:



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral de
Bizkaia



círculosolidarioeuskadi
euskadikoelkarbidea

EUSKADIKO ELKARBIDEA – CÍRCULO SOLIDARIO EUSKADI

1994an eratu zen irabazi asmorik gabeko GGKE gisa, Ekintza Solidarioko komunitate laikalek bultzatuta. Benetan uste dugu **BESTE MUNDO BAT EGIN DAITEKEELA**; hori dela eta, munduko elkarbideen sarearen bidez, aukera eta egitura alternatibo eta solidarioen aldeko apustua eginez lan egiten dugu.

Cebú (Filipinak), Trujillo (Peru) eta San Salvadorren (El Salvador) gaude, batez ere inguru urbano-marjinaletan.

Lan eremuak:

- Hegoaldean giza garapen jasagarriko proiektuen aholkularitza eta kudeaketa.
- Garapen eta sentsibilizaziorako heziketa.
- Komunikazioa eta koordinazioa beste erakunde eta GGKE batzuekin.

Círculo Solidario Euskadi - Euskadiko Elkarbidea Garapenerako Hezkuntza Taldea

Ramón y Cajal, 43 lonja

48014 Bilbao

Tel/Fax: 944754907

E-mail: info@cseuskadi.org

www.euskadi.org

Abril del 2004

Laguntzailea:



■
Bizkaiko Foru
Aldundia

■
Diputación Foral
de Bizkaia

HELBURUA :

“Eta zuk, nola ikusten duzu? Mundua ikusteko moldeak” izeneko gure proiektu honekin eskuratu nahi dugun helburua munduaren gainean dauzkagun ikusmoldeak zalantzan jartzea da, baita susmoak piztu eta uste ustelak aldatu ere... Hori dela-eta, gure asmoa proiektuan parte hartzen dutenen jakingura suspertzea da, eta baita mundu bidezkoago eta onberago bat eraikitzeko dugun erantzukizunari dei egitea ere.

Gainera, jarrera eragileak, partehartzaileak, kritikoak eta taldekakoak sustatu nahi ditugu; izan ere, horrela bakarrik eraldatu ahal izango ditugu gaur egun pairatzen ditugun desberdintasunak eta bidegabekeriak.

Mundua ikusteko daukagun ikusmira mugatua aldatzen eta zabaltzen hasteko erabiliko dugun lehenengo lanabesa mapagintza izango da.

Euskadiko Elkarbidekoon ustez, mundua ikusteko molde berriak bi-latzeak berak zentzumen kritikoa piztu eta Ipar-Hegoko harremanak bestelako puntuetatik ikusten laguntzen digu, justizia eta berdintasunarekin zerikusi gehiago duten puntuetatik alegia.

Antzina-antzinatik gizarte guztiak beren ingurunea hobeto ezagutzen saiatu dira. Hartara, inguruetakoko hiriak, haien arteko bideak eta tartean zeuden mendi, baso eta ibaiak marrazten zituzten. Mapa horiek herrialdea gobernatzeko baliabideak zirenez, sarri-askotan Estatuaren isilpeko agiriak izaten ziren, eta beraietan garai haietako egileen eta gizartearen ikusmoldeak islatzen ziren. Marrazturiko mapa haietan egileen kosmobisioa agertzen zen, eta norberaren gizartearen mugetan hauek bezalako esaldi xebreak idatzi ohi zituzten: “herensugeak eta mamuak bizi dira”.



Kartografoak Lurra biribila dela jabetu zirenean lur-esfera plano batean jartzeko zailtasunak ikusi zituzten, eta ezinaren ezinez azkenean ohartu ziren mapa laua egin nahi izatea guztiz ezinezkoa zela, daukan itxura esferikoa desitxuratu gabe behintzat.



Kartografoek gezurra esaten badute, ez da maltzurkeriaz, halabeharrez baizik. Mapak egitea mundua interpretatzea da, eta interpretazioak ezin dira neutroak izan, are gutxiago objektiboak. Beti dago asmoren bat, ezkutuan egon arren. Guztiarekin ere, ezin uka mapak informazioa jakinarazteko baliabideak direnik. Eta gainera, baliabide guztiz egokiak eta fidagarriak izan daitezke hainbat argibide geografiko, politiko eta abar eskuratzeko. Maparen bidez mundua hamaika modutan ikusi da orain arte eta beste horrenbestetan ikusiko da etorkizunean ere; modu bakoitzak dituen alde on eta txarrekin.

Adibidez, erabili ohi dugun mapa Mercator-ena da (1521), oso ona da

itsasoan ibiltzeko, baina lur-azaleretan distortsio handiak egiten ditu. Mercator-en maparen arabera Groenlandiak eta Txinak antzeko azalera dute, baina Txina lau aldiz handiagoa da. Mapa horren beste ezaugarri bat Europa erdian dagoela da, eta gure irakurtzeko modua ezkerretik eskuinera eta goitik behera doanez, lehenengo mundua deiturikoa lehenengo postuan agertzen zaigu, eta hegoaldea bazterretan.



Peters-en mapa, ordea, ez da baliagarria nabigaziorako, baina gehiago errespetatzen du lur-azaleraren eskala.

Zein da, ba, mundua begiratzeko benetako era? Mundua begiratzeko modu bakar bat dago? Edo nork, noiz, nola eta zertarako begiratzen d(u)en baitan dago?

Munduaren gaineko ikuskera kritikoa behar dugu. Ez daukagu ezer erabat benetakoa, erabat bakarrekoa. Garrantzitsua da begiak zabal-zabalik izatea, eta bestelako ikuspegiak izateko gertu egotea.



Mercator proiektzioa



Peters proiektzioa

Lucia eta mundua

Aita etxeko garajea zegoen auto zaharra konpontzen. Alaba txikia han zebilen gora eta behera, eta aita urduri jartzen hasita zegoen, ezin zuelako amaitu eskuartean zeukana; horregatik puzzle bat ematea otu zitzaion denborapasa izan zezan, ahalbait luzeen, autoa konpontzen uzteko bestekoa. Horretarako, han paper zaharren artean zegoen orri bat hartu eta zatitu zuen, mapamundi bat zen, eta neskatoari eman zion gutxi-gutxika berriro osa zezan. Aitak bere artean pentsatu zuen nahikoa denbora izango zuela konponketa egiteko, baina noiz eta handik bost bat minutura bazegoen berriz ere Luzia bere aurrean puzzle osatua eskuan zeramala.

- Aita amaitu egin dut.

Aitak puzzlea erabat osaturik zeukala ikustean zur eta lur geratu zen, zeren itsaso guztiak islatzen zituzten pieza asko eta asko berdintsuak ziren, eta Luzia bezalako sei urteko umeentzat eginbehar zaila iruditu zitzaion.

- Baina, nolatan amaitu duzu hain azkar?

- Erraza izan da, aita, piezak elkartzeko aztarnak begiak, ahoa eta abar izan dira-eta.

- Aitak erantzun: -zein begi eta zein aho, baina; nik mapamundi bat eman nizun eta.

- Bai, aita, baina nik osatzen hasi bezain laster konturatu nintzen aurpegi bat zegoela atzealdean, eta horrela pertsona horren aurpegia osatu ahal, mundua egiten nuen, eta alderantziz; bata eta bestea gauza bakarra baitzen.

Ilusio optikoak:



Irudiaren izenburua “Hamar lagun” da, baina zenbaketa egin eta gero bederatzi pertsona aurkituko duzu, non dago hamargarrena?. Pista Bat: “indibiduok” lau hanka dauzka.

Neskatila edo atsoa?



Zer ikusten duzu hemen?



Erantzuna:

Ez dago erantzun bakar bat. Nork begiratzen duen arabera gauza bat edo beste bat ikusiko du.

“Benetako aurkikuntza-bidaia ez da bestelako lekuetara joatekoa, bestelako ikuskerak izatekoa baizik”

Marcel Proust